

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ERRETERIAKO UDALA

## Ingurumena

*Animaliak babesteari eta edukitzeari buruzko Erre-  
terriako udal ordenantza.*

Udalbatzak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, ha-  
sierako onespena eman zion animaliak babesteko eta edukitze-  
ko Erreterriako udal ordenantzari.

Dokumentu hori jendaurrean egon da 2021eko maiatzaren  
14tik ekainaren 24ra eta 2021eko uztailaren 28tik irailaren 7ra  
(biak barne). Jendaurreko erakustaldi horretan ez da ekarpenik  
edo erreklamaziorik aurkeztu.

Alkatetza ebazpen bitartez, 2021eko irailaren 24ean, eraba-  
ki zen behin betiko onartutzat hartzea animaliak babesteko eta  
edukitzeko Erreterriako udal ordenantza, hasierako onespene-  
an egin zen baldintza berdinetan.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen ap-  
irilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa be-  
tetzearren, onartutako animaliak babesteko eta edukitzeko Erre-  
terriako udal ordenantza horren testu oso-oso argitaratzen da eta  
indarrean sartuko da iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ar-  
gitaratu eta hurrengo egunean.

Oro har guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argita-  
ratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek adminis-  
trazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administra-  
zioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Au-  
tonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko  
epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta  
biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki iritzitako beste  
edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den araudiaren testua:

*Animaliak babesteari eta edukitzeari buruzko Erre-  
terriako udal ordenantza.*

Aurkibidea.

Zioen adierazpena.

I. titulua. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

2. artikulua. Salbuespenak.

3. artikulua. Definizioak.

II. titulua. Herritarren parte-hartzea eta animaliak babes-  
teko erakundeak. Animaliak babesteko zentroak.

4. artikulua. Animaliak babesteko eta defendatzeko era-  
kondeak.

5. artikulua. Animaliei buruzko udal informazioa eskura-  
tzea.

6. artikulua. Animalien babesaren alorrean parte hartzea.

7. artikulua. Animaliak babesteko zentroak.

III. titulua. Animaliak babesteko erregimen juridikoa.

## AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

## Medio Ambiente

*Ordenanza municipal reguladora de la protección y  
posesión de animales de Erreteria.*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha  
27 de abril de 2021, acordó aprobar inicialmente la ordenanza  
municipal de protección y posesión de animales de Erreteria.

Dicho documento ha estado expuesto a información pública  
del día 14 de mayo al día 24 de junio de 2021 y del día 28 de  
julio al día 7 de septiembre de 2021 (ambos inclusive). En dicho  
período de información pública no se han presentado aportacio-  
nes y/o reclamaciones.

Mediante Resolución de Alcaldía de fecha 24 de septiembre  
de 2021, se acordó entender por aprobada definitivamente la  
ordenanza municipal de protección y posesión de animales de  
Erreteria, en los mismos términos de la aprobación inicial.

Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art. 70.2.º  
de la Ley 7/1985 del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Ré-  
gimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la  
ordenanza municipal de protección y posesión de animales de  
Erreteria, señalando que la misma entrará en vigor al día si-  
guiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, se-  
ñalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y  
contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Ad-  
ministrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco,  
en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de  
la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gi-  
puzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro  
recurso que se tenga por conveniente.

El texto de la normativa aprobada es el siguiente:

*Ordenanza municipal reguladora de la protección y po-  
sesión de animales de Erreteria.*

Índice.

Exposición de motivos.

Título I. Objeto, ámbito de aplicación y definiciones.

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

Artículo 2. Exenciones.

Artículo 3. Definiciones.

Título II. Participación ciudadana y entidades de protec-  
ción y defensa de los animales. Centros de protección animal.

Artículo 4. Entidades de protección y defensa de los ani-  
males.

Artículo 5. Acceso a información municipal relativa a los  
animales.

Artículo 6. Sobre la participación en la protección de anima-  
les.

Artículo 7. Centros de Protección Animal.

Título III. Régimen jurídico de la protección de los animales.

8. artikulua. Animaliak babesteko betebeharra.
9. artikulua. Debekuak.
- IV. titulua. Animaliak edukitzearen inguruko erregimen juridikoa.
- I. kapitulua. Arau orokorrak.
10. artikulua. Animalien jabeen betebeharrak.
11. artikulua. Animaliak egotea bide eta espazio publikoetan.
12. artikulua. Txakurrak ateratzea parke, lorategi publiko eta eremu naturaletan.
13. artikulua. Animaliak hiltzea.
14. artikulua. Animaliak identifikatzea.
15. artikulua. Edukitzearen mugak.
16. artikulua. Osasun publikoa babestea.
17. artikulua. Abandonatutako txakurrak.
18. artikulua. Animalia abandonatuekin jarduteko prozedura.
19. artikulua. Animalia hilak jasotzea.
20. artikulua. Txakurrak eraso egiten duenean jarraitu beharreko prozedura.
21. artikulua. Laguntza-txakurrak.
22. artikulua. Garraio publikoa.
23. artikulua. Konpainiako animaliak Europako Erkidegoaren barruan lekuz aldatzea.
24. artikulua. Txakurren erregimen orokorra.
- II. kapitulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko berariazko xedapenak.
25. artikulua. Erregimen orokorra.
26. artikulua. Lizentzia.
27. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa.
28. artikulua. Segurtasun-neurriak.
29. artikulua. Salbuespenak.
30. artikulua. Garraioa.
- V. titulua. Animaliekin zerikusia duten jarduerak.
- I. kapitulua. Gune zoologikoak.
31. artikulua. Erregimen orokorra.
32. artikulua. Albaitaritzazentzokak eta animaliak merkatuzeko establezimendukak.
- II. kapitulua. Lurzoru publikoko jarduerak.
33. artikulua. Ehiza-jarduerak.
34. artikulua. Zirkuak eta antzekoak.
35. artikulua. Bestelako jarduerak.
- III. kapitulua. Txakur-parkeak.
36. artikulua. Definizioa.
37. artikulua. Txakurrentzako eremuak erabiltzeko nahitaez bete beharreko arauak.
- VI. titulua. Zigortzeko erregimena.
- I. kapitulua. Xedapen orokorrak.
38. artikulua. Ikuskapena eta kontrola.
39. artikulua. Arau-haustekak eta zigorrak.
1. atala. Arauak haustea.
40. artikulua. Arau-haustekak.
41. artikulua. Zigorrak.

- Artículo 8. El deber de protección de los animales.
- Artículo 9. Prohibiciones.
- Título IV. Régimen jurídico de la posesión de animales.
- Capítulo I. Normas de carácter general.
- Artículo 10. Obligaciones de las personas poseedoras de animales.
- Artículo 11. Presencia de animales en la vía y espacios públicos.
- Artículo 12. Esparcimiento de perros en parques, jardines públicos y áreas naturales.
- Artículo 13. Sacrificio de los animales.
- Artículo 14. Identificación de animales.
- Artículo 15. Limitaciones a la posesión.
- Artículo 16. Protección de la salud pública.
- Artículo 17. Animales abandonados.
- Artículo 18. Procedimiento ante animales abandonados.
- Artículo 19. Recogida de animales muertos.
- Artículo 20. Procedimiento ante una agresión.
- Artículo 21. Perros de asistencia.
- Artículo 22. Transporte público.
- Artículo 23. Desplazamientos intracomunitarios de animales de compañía.
- Artículo 24. Régimen general de la especie canina.
- Capítulo II. Disposiciones específicas sobre animales potencialmente peligrosos.
- Artículo 25. Régimen general.
- Artículo 26. Licencia.
- Artículo 27. Registro de animales potencialmente peligrosos.
- Artículo 28. Medidas de seguridad.
- Artículo 29. Excepciones.
- Artículo 30. Transporte.
- Título V. De las actividades relacionadas con los animales.
- Capítulo I. Nucleos zoológicos.
- Artículo 31. Régimen general.
- Artículo 32. Centros veterinarios y establecimientos de comercio de animales.
- Capítulo II. Actividades en suelo público.
- Artículo 33. Actividades cinegéticas.
- Artículo 34. Circos y similares.
- Artículo 35. Otras actividades.
- Capítulo III. Parques caninos.
- Artículo 36. Definición.
- Artículo 37. Normas de uso obligatorias en las áreas caninas.
- Título VI. Régimen sancionador.
- Capítulo I. Disposiciones generales.
- Artículo 38. Inspección y control.
- Artículo 39. Infracciones y sanciones.
- Sección 1.ª Infracciones a la ordenanza.
- Artículo 40. Infracciones.
- Artículo 41. Sanciones.

42. artikulua. Zigortzeko eskumena.  
II. kapitulua. Zigortzeko prozedura.  
43. artikulua. Prozedura.  
44. artikulua. Auzibide penala.  
45. artikulua. AIEOari jakinaraztea.  
Azken xedapena.  
Xedapen Indargabetzailea.

ANIMALIAK BABESTEARI ETA EDUKITZEARI BURUZKO  
ERRENTERRIAKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizakia antzinatik bizi da beste espezieetako animaliekin. Alabaina, hiri-inguruneetan geroz eta bestelako animalia gehiago izaten da azkenaldian.

Gure inguruko gizartean garapen ekonomikoarekin batera, gizartea, kultura eta ingurumena ere garatu dira, eta hori agerian geratzen da animalien munduko eta biodibertsitate osoko izaki biziak errespetatzeko exijentziarekin, bereziki gizakiaren gaitz gertuen dauden eta berarekin bizi diren animaliei dagokienez. Gainera, geroz eta ugariagoak dira animaliek kontzientzia-maila desberdinak dituztela dioten ikerketa zientifikoak, bereziki hegazti eta ugaztunen ingurukoak.

Denborarekin, bien arteko harremana aldatu egin da, eta horrek eragin du azken hamarkadetan sortzea animaliak eskubideen subjektu gisa hartzearen aldeko korronte ideologiko eta pentsamendu berriak.

Animalien ongizatearen inguruko kezka ere agerikoa da, bai erakundeetan, bai arauetan. Animalien Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 1978ko urriaren 27an onartu zuen Unescok, eta Nazio Batuek ere berretsi zuten. Aldarrikapen horretan jasotzen dira animalien oinarrizko eskubideak, eta aitortzen du animaliak errespetatzeak lotura duela pertsonen elkar errespetatzearekin.

Bestalde, Europako Batzordea jakitun da animaliak errespetatu eta babestu behar diren, eta hala jasotzen du animaliek garraioan, ikuskizun publikoetan, ehizan, abeltegietan, gune zoologikoetan, laborategietan eta abarretan jasotzen duten tratua erregulatzeko arauetan.

Euskadin animaliak babestearen inguruko oinarrizko legeriarren (6/1993 Legea, urriaren 29koa, Animaliak Babesteko) helburua da arauak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxe-abereak, animalia etxekotuak eta itxian dauden basatiak babesteko, bertan erroldatuta edo erregistratuta egon ala ez eta jabeak edo edukitzaileak egoitza edonon duela ere.

Bestalde, Errenteriako Udalak 1998tik badu Txakurra Eduki eta Zaintzeko Ordenantza. Alabaina, erakundeetan eta gizartean animalien ongizatearen alde egiten duen errealitate berriaren aurrean, eta gizakiaren etxeko eta etxekotutako bestelako animalia-espezieen arteko harremanak arautzearen, Animaliak Babesteari eta Edukitzeari buruzko Errenteriako Ordenantza berria egin da.

Udalaren arau berri honek, animalien edukitza arautzeaz gain, hainbat betebeharrak ezartzen dizkie Udalari eta animalien edukitzaile eta titularrei, animaliek gizartean eragin ditzaiketen arriskuak minimizatzen, bizikidetzaren egokia izan dadin saiartzeko eta azpimarratuta animaliak edukitzeak ardura eskatzen duela, hala animaliarekiko tratuari dagokionez nola herrian bizikide di-

- Artículo 42. Competencia sancionadora.  
Capítulo II. Procedimiento sancionador.  
Artículo 43. Procedimiento.  
Artículo 44. Concurrencia con el proceso penal.  
Artículo 45. Comunicación al REGIA.  
Disposición final.  
Disposición derogatoria.

ORDENANZA REGULADORA DE LA PROTECCIÓN Y POSESIÓN  
DE ANIMALES DE ERRENTERRIA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La convivencia del ser humano con animales de otras especies es un hecho constatado desde la antigüedad. Sin embargo, el número de otros animales por hogar se ha visto incrementado de manera considerable en entornos urbanos.

El desarrollo económico de las sociedades de nuestro entorno ha venido acompañado de la adquisición paralela de un mayor grado de desarrollo socio-cultural y ambiental, manifestado también por una cada vez más importante exigencia de respeto hacia los seres vivos que integran el mundo animal y el conjunto de la biodiversidad, y particularmente hacia aquellos animales que más cerca e íntimamente conviven con el ser humano. Máxime cuando van aumentando las numerosas investigaciones científicas que avalan la existencia de diferentes grados de consciencia en animales, especialmente aves y mamíferos.

A lo largo del tiempo, la relación entre ambos ha variado, lo que ha motivado, en las últimas décadas, la generación de nuevas corrientes ideológicas y de pensamiento partidarias de considerar a animales como sujeto de derechos.

La inquietud por el bienestar animal queda patente, también, a nivel institucional y normativo. La Declaración Universal de los Derechos de los Animales aprobada por la Unesco el 27 de octubre de 1978, y ratificada posteriormente por las Naciones Unidas, recoge los derechos fundamentales de los animales, y reconoce que el respeto a los animales está ligado al respeto entre las propias personas.

Por su parte, la Comisión Europea ha tomado conciencia clara de la necesidad de dicha exigencia de respeto y protección a los animales, y así queda reflejado en disposiciones normativas que pretenden regular el trato que reciben los animales en el transporte, los espectáculos públicos, la caza, las granjas, los núcleos zoológicos, los laboratorios, etc.

La legislación básica en materia de protección de animales en el País Vasco (Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales) tiene la finalidad de establecer normas para la protección de los animales domésticos, domesticados y salvajes en cautividad que se encuentren en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con independencia de que estuviesen o no censados o registrados en ella y sea cual fuere el lugar de residencia de sus dueños o poseedores.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Errenteria cuenta desde 1998 con una Ordenanza Municipal Reguladora de la Posesión y Cuidado de los Perros. Sin embargo, ante la nueva realidad que persigue el bienestar animal a nivel institucional y social, y con objeto de regular las relaciones entre el ser humano y las otras especies animales domésticas y domesticadas, se ha elaborado la nueva Ordenanza de Protección y Posesión de Animales de Errenteria.

Esta nueva norma municipal, además de regular la posesión de animales, establece un conjunto de obligaciones para el Ayuntamiento y para las personas poseedoras y titulares de animales, con el objeto de minimizar los riesgos varios que pueden suponer los animales en sociedad, intentando garantizar una convivencia social adecuada, e incidiendo en la necesidad de

tugun gainerako pertsonetikiko begirune eta errespetuari dago-kienez.

Alabaina, helburu honekin batera, Ordenantza honen xede nagusietariko bat da bermatzea pertsonen eta animalien arteko bizikidetzak ona izango dela. Sustatzen du animalien arteko izateko protekzionista eta, zehazki, animalien ongizatearen kontzeptua, saiatuz bermatzen beren izatearen arabera dutela eta jasotzen dituztela animaliek jaso beharreko gutxienezko arretak, tratuari, gizakiarekiko harremanei, higienari, zaintzari, babesari eta garraioari dagokienez, horrela garapen integral eta naturala laguntzeko.

Hartara, Ordenantza honen xedea da animaliak babestea eta laguntzea ongizatean bizi daitezen, bermatzea arduraz zaintzen dituztela eta gutxitzea abandonuak, habitat naturalen eta espezie basatien gaineko afekzioa, behin eta berriro gertatzen diren galtzeak eta kontrolrik gabeko ugaltzeak, minimizatuta ingumen-osasunerako arriskuak eta mantenduta pertsona, ondasun eta animalien lasaitasuna, osasun publikoa eta segurtasuna. Horretarako, Ordenantza honek ezartzen ditu beste hainbat arlotarako arauak ere: establezimendu espezializatuak egoaldia, osasun-arreta, merkaturatzea eta salmenta, ikuskizun publikoak, eremu zoologikoak, kaleko jarduerak, txakur-parkeak, bilketa, identifikazioa, sakrifizioa edo esterilizazioa.

Pertsonen eta animalien arteko bizikidetzak hobea sustatzearen, Ordenantza honek lagundu nahi du animalien arteko sentimenduetara eta errespetua hobetzen, gizarte moderno eta justu baten jarrerak sustatuko dituen hezkuntzarako oinarriak ezarri eta Erreterian.

## I. TITULUA

### XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

#### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

Ordenantza honen xedea da arauak ezartzea animaliak babesteko, eduki, erakutsi, erabili eta merkaturatzeko, horien eta pertsonen arteko bizikidetzak harmonizatuta, prebenitzeko edo ahalik eta gehien gutxitzeko osasun publikorako balizko arriskuak eta ingurumenaren gaineko eragin negatiboak, pertsonen eta ondasunen lasaitasuna eta segurtasuna lortze aldera.

Araudi hau aplikatzen da Europako, Estatuko eta Euskadiko animalien babesaren eta edukitzaren inguruko araudiaren baitan. Halaber, arautzen du arriskutsuak izan daitezkeen animalien edukitzea, eta jasotzen dira lizentzien beharra, baldintza orokorrak eta erregistroen erregimena.

Ordenantza honen aplikazio-eremua da Erreteria, animaliak bertan erroldatuta edo erregistratuta egon ala ez, eta edozein lekutan bizi direlarik ere animalien jabeak edo edukitzeak (animalien ardura dutenak).

#### 2. artikulua. Salbuespenak.

1. Ordenantza honen esparrutik kanpo geratzen dira eta araudi propioak zuzenduko dituen hauek:

- Ehiza.
- Arrantza.
- Natura basatia eta natura-ingurunea babestea eta kontserbatzea.
- Zezenak.
- Animaliak erabiltzea esperimentuetarako edo bestelako helburu zientifikoetarako.

2. Alabaina, gatibu dauden animalia basatiei edo beren natura-ingurunera itzultzeko hazi direnei aplikatuko zaizkie Animaliak babesteko 6/1993 Legearen 4.1 eta 2 artikuluetan xe-

una posesión responsable, tanto en el trato con el animal, como en la consideración y en el respeto hacia el resto de las personas con las que se convive en el municipio.

Ahora bien, al lado de esta finalidad, uno de los principales objetivos de la presente Ordenanza es asegurar la buena convivencia entre personas y animales. Impulsa un carácter protector dirigido hacia los animales y en concreto el concepto de bienestar animal, pretendiendo garantizar a los mismos, una vida conforme a su propia naturaleza y las atenciones mínimas que deben recibir los animales en cuanto al trato, relación con el ser humano, higiene, cuidado, protección y transporte, facilitando su desarrollo integral y natural.

Es, por lo tanto, propósito de esta Ordenanza buscar la protección y bienestar de los animales, garantizar una posesión responsable y reducir los abandonos de los mismos, su afectación en hábitats naturales y especies salvajes, extravíos reiterados, procreación incontrolada, minimizando los riesgos para la sanidad ambiental y preservando la tranquilidad, salud pública y seguridad de las personas, bienes, y animales. Para ello, la presente Ordenanza también establece las normas sobre la estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta, espectáculos públicos, núcleos zoológicos, actividades en la vía pública, parques caninos, recogida, identificación, sacrificio o esterilización.

En la línea de impulsar una mejor convivencia entre las personas y los animales, la presente Ordenanza desea contribuir al objetivo de aumentar la sensibilidad y el respeto hacia los animales, estableciendo las bases para una educación en el municipio de Erreteria que promueva comportamientos propios de una sociedad moderna y justa.

## TÍTULO I

### OBJETO, ÁMBITO DE APLICACIÓN Y DEFINICIONES

#### Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

Es objeto de la presente Ordenanza establecer normas para la protección, posesión, exhibición, utilización y comercialización de los animales, armonizando la convivencia de éstos y las personas, para prevenir o reducir tanto los posibles riesgos a la salud pública, impactos negativos de tipo ambiental y buscar la tranquilidad y seguridad de personas y bienes.

Esta normativa se aplica en el marco de la normativa europea, estatal y vasca de protección y posesión de animales. Asimismo, regula la posesión de animales potencialmente peligrosos, contemplando la sujeción a licencia, condiciones generales y régimen de registros.

El ámbito de aplicación de esta Ordenanza es el municipio de Erreteria, con independencia de que los animales estén o no censados o registrados en él y sea cual fuere el lugar de residencia de las personas propietarias o que posean (tengan a su cargo) los animales.

#### Artículo 2. Exenciones.

1. Quedan fuera del ámbito de esta Ordenanza y se regirán por su normativa propia:

- La caza.
- La pesca.
- La protección y conservación de la naturaleza silvestre y el medio natural.
- Los toros.
- La utilización de animales para experimentos y otros fines científicos.

2. No obstante, a los animales salvajes cautivos o los criados con la finalidad de ser devueltos a su medio natural, les serán de aplicables las disposiciones contenidas en los artícu-



datutakoa eta, oro har, osasunari buruzkoak eta abandonatu, jaso, barneratu, isolatu edo sakrifikatzearen inguruak.

### 3. artikulua. Definizioak.

Ordenantza honi dagozkionetarako, definizio hauek baliatuko dira:

1. Jabea: Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia erkidegoetako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean hala jasota ageri dena. Ez bada inor ageri erregistroan, orobat joko da jabetzat identifikazio elektronikorik gabeko animalia bat duena eta haren jabe gisa jarduten dena.

2. Edukitzailea: jabe izan gabe ere, aldi batez animalia bat berekin duen pertsona, dela soilik zaintzeko, dela zaintza legale-rako.

3. Etxeko animalia: bizirik irauteko gizakien laguntasuna ezinbestekoa duena.

4. Etxekotutako animalia: basoan eta aske jaio arren gizakiak ikustera eta lagun izatera ohitu eta orain bizirik irauteko haien zaintza eta arreta dutenak.

5. Animalia basatiak: basati bizi diren animalia autoktonoak nahiz autoktono ez direnak.

6. Hiriko animalia basatiak: hiri eta herrietako hirigunee-tan bizi diren animalia basatiak, lurralde geografikoa pertso-nekin partekatzen dutenak.

7. Itxian dauden animalia basatiak: basoan nahiz itxian jaioak izan, gatibu bizi direnak -baina ez etxekotuak izateko ikaskuntza-egoeran-.

8. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak dira:

a) Basatiak izanik ere etxe-abere edo konpainiako animalia gisa erabiltzen direnak, baldin eta, beren oldarkortasuna gorabehera, gizakiak edo beste animalia batzuk hiltzeko edo gauzei kalteak eragiteko ahalmena duten espezie edo arrazetakoak badira.

b) Halaber, arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat joko dira arauz hala erabakitzen den etxe-abereak edo konpainiakoak; bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan zehaztuta dauden espezieetako txakurrak, baita dekretu horren 10.1.c) artikulua ildotik halakotzat jotzen direnak ere.

9. Beren ezaugarri etologikoak direla-eta udal agintariak edukitze-erregimen bereziaren mende jartzen dituzten txakurrak edukitzeko baldintza bereziak bete behar dira.

10. Abandonatzea: edonork jabe gisa dagozkion bete-beharrei bere borondatez uko egitea, onuradun jakinik izendatu gabe. Halaber, ulertuko da animalia abandonatu dutela ez doanean inorekin edo animaliak identifikazioa badarama eta jabeak edo animaliaaren ardura duen pertsonak ez badu salatu galdu duela.

11. Konpainiako animalia: Pertsonen, konpainia egin diezaiezen -eta tartean irabazizko jarduerarik izan gabe- normalean etxean eduki ohi duten etxeko animalia. Aipatutako animalia horiek pertsonen zaintza eta arreta behar izaten dute bizirauteko.

12. Ustiapenerako animalia: Giza ingurunea egokituta, gizakiak etekina ateratzeko mantentzen dituen animaliak, etekina lortuta ere animalietatik beretatik edo sortzen dituzten produkzioetatik.

13. Laguntza-txakurra: bertako edo atzerriko zentroetan trebatutako animalia, desgaitasun, nahasmendu edo gaixotasun jakinen baten duten pertsonak laguntzeko, gidatzeko eta sorosteko.

los 4.1 y 2 de la Ley 6/1993 de Protección de los Animales, y en general las de carácter sanitario y las relativas al régimen de abandono, recogida, internamiento, aislamiento o sacrificio.

### Artículo 3. Definiciones.

A los efectos de esta Ordenanza se entiende por:

1. Persona propietaria: quien así conste en el Registro General de Identificación Animal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o de otro registro de Comunidades Autónomas. En su defecto, también, ostentará esta condición quien posea un animal sin identificación electrónica como si de dueño o dueña se tratase.

2. Persona poseedora: aquella persona que posea un animal circunstancialmente, sin ostentar el carácter de dueño o dueña, sino a los solos efectos de cuidar el animal, o para su guardia y custodia.

3. Animal doméstico: aquél que depende del ser humano para su subsistencia como especie.

4. Animal domesticado: aquél que, habiendo nacido salvaje y libre, es acostumbrado a la vista y compañía de la persona, dependiendo definitivamente del cuidado y atención de ésta para su subsistencia.

5. Animales salvajes: aquellos autóctonos o exóticos que viven en estado salvaje en armonía o no con la biodiversidad de su hábitat natural.

6. Animales salvajes urbanos: aquellos animales salvajes que viven en los núcleos urbanos de las ciudades y pueblos, compartiendo territorio geográfico con las personas.

7. Animales salvajes en cautividad: aquellos que, habiendo nacido salvajes o en cautividad, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje para su domesticación.

8. Son animales potencialmente peligrosos los que:

a) Perteneciendo a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos o de compañía, con independencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar muerte, lesiones o enfermedades a las personas o a otros animales y daños a las cosas.

b) También tendrán la consideración de potencialmente peligrosos los animales domésticos o de compañía que reglamentariamente se determinen y, en particular, los animales de la especie canina determinados en los anexos I y II al Decreto 101/2004, de 1 de junio, así como los declarados con tal carácter conforme al artículo 10.1.c) de dicho texto reglamentario.

9. Son perros sometidos a condiciones especiales para su posesión, aquellos ejemplares concretos que por sus circunstancias etológicas, puedan ser sometidos por la autoridad municipal a un régimen especial para su posesión.

10. Abandono: es la renuncia voluntaria sin beneficiario determinado de los deberes como titular del animal. También, se considerará animal abandonado cuando éste no vaya acompañado de ninguna persona o cuando portando el animal la identificación correspondiente, no haya sido denunciado su extravío por su propietario o propietaria o por persona a su cargo.

11. Animal de compañía: animal doméstico que las personas mantienen generalmente en el hogar para obtener compañía, que requiere del cuidado y atención de éstas para su subsistencia, sin que ello conlleve actividad lucrativa alguna.

12. Animal de explotación: Todos aquellos que, adaptados al entorno humano, sean mantenidos por el ser humano con fines lucrativos, bien de los animales en sí o de las producciones que generan.

13. Perro de asistencia es el animal adiestrado en centros nacionales o extranjeros reconocidos, para el acompañamiento, conducción y auxilio de personas con alguna discapacidad, trastorno o enfermedades reconocidas que lo requiera.

14. Katu-kolonia urbanoak: kaleko katuen taldeak, hiriko edo gune pribatueta zentratu eremutan asentatzen direnak eta erdi-askatasuneko egoeran bizi direnak.

15. Gune zoologikoa izango da animaliak mantendu, hazi edo saltzen dituen zentro, establezimendu edo instalazio oro, izan jarduera nagusi ala ez eta merkataritzako helburua izan ala ez, betiere Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

## II. TITULUA

### HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ANIMALIAK BABESTEKO ERAKUNDEAK. ANIMALIAK BABESTEKO ZENTROAK

4. artikulua. *Animaliak babesteko eta defendatzeko erakundeak.*

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, animaliak babesteko erakundetzat joko dira legez eraturako irabazi-asmorik gabeko elkarteak, baldin eta beren helburu nagusien artean badago animaliak babestea.

2. Nagusiki elkarte horiekin hitzartu ahal izango ditu Udalak animaliak babestera zuzendutako jarduerak, eta, bereziki, zeregin hauek:

a) Kaleko animaliak, galduak nahiz abandonatuak, baita jabeek emandakoak, administrazioek konfiskatutakoak eta osasun arrazoiengatik bakartuta egon behar dutenak ere jaso edo bere instalazioetan edukitzea.

b) Instalazio horiek erabiltzea animalia abandonatuak, jabeirik gabek, administrazioek konfiskatutakoak edo osasun arrazoiengatik bakartuta egon behar dutenak zaindu eta tratatzeko.

c) Animaliak besteri lagatzeko izapideak egitea, Erretereriako Udalak finkatutako jarraibideak eta ordenantza hau aintzat harturik.

d) Animaliak modu eraginkorragoan babesteko egoki irizten dieten neurriak proposatzea Erretereriako Udalari.

e) Animaliak babestearen inguruko jarduerak eta kanpainak egitea.

3. Erretereriako Udalak hitzarmenak egin ahal izango ditu animaliak babesteko elkarteekin, animalia abandonatu, zauritu edo gaixoak kudeatzeko.

4. Elkarte horiek interesatuz hartuko dira animaliak babestearen inguruko prozedura zigortzaileetan, hurrengo legeetan xedatutakoaren idotik: Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, eta Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean.

5. artikulua. *Animaliei buruzko informazioa eskuratzea.*

Herritarrek eta elkarteek eskatu ahal izango dute, horretarako ezarritako bideen bitartez, udal-jarduerari eta horien aurrekari buruzko informazioa eta, oro har, animalien babesaren inguruan Udalak ematen dituen zerbitzu eta jarduerari buruzkoa, indarrean dauden lege-xedapenen arabera.

6. artikulua. *Animalien babesaren alorrean parte hartzea.*

1. Animaliak babesteko eta defendatzeko erakundeek Udalaren eskumeneko auzietan parte hartu ahal izango dute herritarren parte-hartzeari buruzko arauetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Erretereriako Udalak sustatu ahal izango du Animalien Ongizaterako Batzordea sor dadin. Batzorde horren antolamendua eta helburuak arautu egingo dira.

14. Colonias urbanas felinas son grupos de gatos callejeros que se asientan en determinadas zonas municipales o privadas, que viven en estado de semilibertad.

15. Se considerará núcleo zoológico a todo centro, establecimiento y/o instalación que aloje, mantenga, críe y/o venta animales, sea ésta su actividad principal o no e independiente de que tenga finalidad mercantil, y de acuerdo a lo establecido en el Decreto 81/2006, de 11 de abril, de Núcleos Zoológicos.

## TÍTULO II

### PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y ENTIDADES DE PROTECCIÓN Y DEFENSA DE LOS ANIMALES. CENTROS DE PROTECCIÓN ANIMAL

Artículo 4. *Entidades de protección y defensa de los animales.*

1. De acuerdo con la presente Ordenanza, serán asociaciones de protección y defensa de los animales las asociaciones sin ánimo de lucro constituidas legalmente que tengan entre sus principales finalidades la defensa y protección de los animales.

2. El Ayuntamiento podrá conveniar la realización de actividades encaminadas a la protección y defensa de los animales, y en especial las siguientes funciones:

a) Recoger y/o mantener instalaciones para animales vagabundos, extraviados o abandonados, o que fueren entregados por sus titulares o decomisados por la Administración o que deban permanecer aislados por razones sanitarias.

b) El uso de las instalaciones para el depósito, cuidado, y tratamiento de animales abandonados, sin dueño o dueña, decomisados por la Administración o que deban permanecer aislados por razones sanitarias.

c) Gestionar, bajo las directrices establecidas por el Ayuntamiento de Erretereria y esta Ordenanza, la cesión de animales a terceras personas.

d) Proponer al Ayuntamiento de Erretereria la adopción de cuantas medidas consideren oportunas para una defensa y protección más eficaz de los animales.

e) Realizar actividades y campañas relacionadas con la protección y defensa de los animales, y contra el maltrato animal.

3. El Ayuntamiento de Erretereria podrá elaborar convenios con las Asociaciones protectoras de animales para la gestión de los animales abandonados, heridos o enfermos.

4. Las asociaciones tendrán la consideración de interesadas en los procedimientos sancionadores relativos a la protección y defensa de los animales en los términos establecidos en la Ley 2/1998 de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Artículo 5. *Acceso a la información relativa a animales.*

Las personas y las asociaciones podrán solicitar por los medios establecidos información sobre las actuaciones municipales y sus antecedentes y, en general, sobre todos los servicios y actividades municipales relacionados con la protección y posesión de animales de acuerdo con las disposiciones legales vigentes.

Artículo 6. *Sobre la participación en la protección de los animales.*

1. La participación de las entidades de protección y defensa de los animales en los asuntos de competencia municipal será la prevista en las normas sobre participación ciudadana.

2. El Ayuntamiento de Erretereria podrá promover la creación de una Comisión de Bienestar Animal cuya organización y finalidades se establecerán reglamentariamente.

**7. artikulua. Animaliak babesteko zentroak.**

1. Erreterriako Udalak animaliak babesteko zentroekin edo elkarteekin hitzartu ahal izango du abandonatu, galdu edo dekomisatu diren animaliei ostatu ematea, berreskuratzen, lagatzen edo, salbuespenezko kasuetan, eutanasia-prozeduren bidez sakrifikatzen diren arte.

2. Animaliak atzeman eta garraiatzeko bitartekoek, baita animaliak babesteko zentroetako instalazioek ere, higijene- eta osasun-egoera egokian egon beharko dute, animaliei ahalik eta traumarik gutxien eragitekoak izan beharko dute eta langile gai-tuek baliatu beharko dituzte.

3. Animaliak babesteko zentroek berariazko araudian eta gune zoologikoei buruzkoan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

4. Zentro horiek ezarritako gehieneko egonaldia gairiditu duten animaliak laga, adopzioan eman, edo beste aukera batzuk sustatzeko programak izan beharko dituzte, beren osasun-egoera edo jarrera kontuan hartuta, albaitariza zerbitzuek kontrakoa irizten dioten kasuetan izan ezik.

5. Udalak edo animaliak babesteko elkarteak titular berriei ematen dizkien animaliek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Identifikatuta egon beharko dute.
- b) Desparasitatuta, txertoak jarrita eta, ahal dela, esterilizatuta egongo dira.
- c) Bere ezaugarriak eta behar higieniko-sanitarioak, etologikoak eta animalia-ongizatekoak jasotzen dituen dokumentu batekin entregatuko dira.

6. Aldi baterako zaintzan edo lagapeneko bestelako kasuetan entregatzen diren animaliek baldintza hauetan egon beharko dute:

- a) Animaliak Babesteko Elkartearen liburuetan erregistratuta.
- b) Desparasitatuta, txertoak jarrita eta esterilizatuta.

7. Erreterriako Udalak dena delako erregistroari jakinarazi beharko dizkio animalia-erregistroari jabe berriaren datuak.

**III. TITULUA**

**ANIMALIAK BABESTEKO ERREGIMEN JURIDIKOA**

**8. artikulua. Animaliak babesteko betebeharra.**

Hiri iraunkorra izateko konpromisoa aintzat hartuta, eta bere eskumenen eremuan, Erreterriako Udalak animaliak babesteko betebeharra dauka, indarrean dagoen legerari jarraiki. Erreterriako Udalak animaliekiko sentiberatasuna eta errespetua sustatu ditu.

Horretarako, Udalak sentsibilizazio-kanpainak egin ahal izango ditu animaliak edukitzearen, abandonatzearen edo tratu txarrak ematearen inguruan, betiere gutxiago abandona ditzaten, haien ongizatea hobetu, tratu txarrak desagerrarazi eta beste animalia-espezie batzuekiko enpatia sustatzearen.

Halaber, Erreterriako Udala jakitun da erredua izan behar duela herritarrentzat. Hartara, egoki diren neurriak hartuko ditu animaliak babesteko jaietako eta aisialdiko jardueretan, bere jabetzako lurretan egiten diren ekitaldietan, kontratazioetan, programazioetan,...

**9. artikulua. Debekuak.**

Berariaz debekatuta egongo da:

1. Animaliei tratu txarra ematea, edo sufrimendua, mina edo bidegabeko larritasuna eragin liezaiekeen edozein jardueraren pean jartzea.

**Artículo 7. Centros de protección animal.**

1. El Ayuntamiento de Erreterria podrá concertar con un Centro de Protección Animal o asociaciones autorizadas de protección y defensa de los animales, el alojamiento de los animales abandonados, perdidos o decomisados hasta que sean recuperados, cedidos o excepcionalmente sacrificados mediante procedimientos eutanásicos.

2. En cualquier caso, los medios utilizados en la captura y transporte de los animales, así como las instalaciones donde se alojen los animales (sean municipales o de terceros) tendrán las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas, ocasionarán el mínimo trauma para el animal y serán atendidas por personal capacitado.

3. Los centros de protección tendrán que cumplir con los requisitos establecidos por su normativa específica y por la de núcleos zoológicos.

4. Dichos centros deberán disponer de programas para la promoción de la cesión, adopción u otras alternativas para todos los animales alojados que hayan superado los periodos de estancia establecidos, excepto en los casos en que, visto su estado sanitario y/o de comportamiento, los servicios veterinarios consideren lo contrario.

5. Los animales entregados por el Ayuntamiento o la Asociación Protectora a sus nuevos titulares deberán cumplir las siguientes condiciones:

- a) Deberán estar identificados.
- b) Deberán estar desparasitados, vacunados y preferentemente esterilizados.
- c) Deberán entregarse con un documento donde consten las características y las necesidades higiénico-sanitarias, etológicas y de bienestar animal.

6. Los animales que sean entregados en custodia temporal u otros supuestos de cesión deberán encontrarse en las siguientes condiciones:

- a) Deberán estar registrados en los Libros del Centro de Protección Animal.
- b) Deberán estar desparasitados, vacunados, y esterilizados.

7. El Ayuntamiento de Erreterria deberá comunicar al Registro correspondiente los datos referidos a la nueva persona propietaria del animal.

**TÍTULO III**

**RÉGIMEN JURÍDICO DE LA PROTECCIÓN DE LOS ANIMALES**

**Artículo 8. El deber de protección de los animales.**

Con el compromiso de ser ciudad sostenible y en el ámbito de sus competencias, el Ayuntamiento de Erreterria tiene el deber de proteger a los animales de acuerdo con la legislación vigente. El Ayuntamiento de Erreterria fomentará la sensibilidad y el respeto a los animales.

Para ello el Ayuntamiento podrá desarrollar campañas de sensibilización en materia de abandono, maltrato animal, posesión,... de los animales, con objeto de reducir su abandono, mejorar su bienestar, eliminar el maltrato y fomentar la empatía para con otras especies animales.

Asimismo, el Ayuntamiento de Erreterria es consciente de su deber ejemplarizante para con la ciudadanía. Por este motivo, adoptará las medidas que considere oportunas en materia de protección animal en relación a actos festivos y lúdicos, actos en suelos de su propiedad, contrataciones, programaciones,...

**Artículo 9. Prohibiciones.**

Queda expresamente prohibido:

1. Maltratar, o agredir a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir daño o sufrimiento, y angustia injustificada.

2. Animaliak abandonatzea.
3. Bizirik irauteko beharrezko elikadura ez ematea edota higiene- eta osasun-ikuspuntutik desegokiak diren establezimenduetan edukitzea, animalia-aren ongizateari eta segurtasunari dagokionez.
4. Animaliei mutilazioak egitea, salbu eta ezinbestean, arrazoi funtzionalak direla medio, albaitariaren kontrolpean egiten direnak.
5. Txakurrak etengabe lotuta edukitzea.
6. Animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea, edo kalte fisikoa edo psikikoa eragin liezaiekeen edozein manipulazio artifizial egitea, nahiz eta lehiaketa batean errendimendua handitzeko izan.
7. Beren izaerari ez dagozkion portaera edo jarrera desegokiak harraraztea, edo tratu laidoztagarria ematea.
8. Animaliak borroketarako erabiltzea.
9. Animaliak bide publikoan hiltzea, nahitaezkoa edo ezinbestekoa denean izan ezik.
10. Animaliak saldu, eman edo lagatzea adingabeei (legez finkatutakoari jarraiki) edo ezgai diren pertsonen haiei guraso-agingtea edo tutoretza dutenen baimenik gabe.
11. Animalien salmenta ibiltaria burutzea kalean, berariaz baimendutako azoka edo merkatuetan izan ezik.
12. Merkaturatu ezin diren espezie zinegetikoen salerosketa.
13. Laborategi edo klinikei animaliak saltzea, administrazioaren kontrolik gabe.
14. Animaliak publizitate-erakargarri, sari edo donari gisa ematea, haien kostu bidezko salerosketaren ondorio diren negozio juridikoak salbu.
15. Babestutako eta mehatxatutako espezieetako animaliak saltzea edo erostea, baita halakorik edukitzea eta jendaurrean erakustea ere, berariazko legerian jasotakoaren ildotik.
16. Horretarako berariazko baimenik gabe animalia basatietan eta hiriko basatietan kontrolik gabe jaten ematea bide publiko, orube, erreka eta abarretan.
17. Era berean, debekatuta egongo da edozein espezieetako animalien hiltzak uztea bide publikoan edo hondakinak gaika biltzeko edukiontzietan, eta halakorik suertatuz gero udal-zerbitzuei jakinarazi beharko zaie, egokitzat jotzen duten moduan joka dezaten. Puntu honetan, bete beharko da Errenteriarako etxeko eta merkataritzako hondakinen udal-ordenantzak xedatutakoa ere.
18. Animaliekiko krudeltasuna, tratu txarra edo sufrimendua erakusten duten fikzioko eszenak filmatu, argazkiak atera edo edozein komunikazio-euskarritan grabatzea, administrazio autonomikoan eskumenak dituen organoari jakinarazi gabe -itxuraz animalia-ri eragindako mina benetan fikzio huts dela egiaztatu ahal dezan-.
19. Ibilgailuak animalien ohiko bizilekutzat baliatzea. Halaber, barruan animalia-aren bat duten ibilgailuek ezingo dute egon bi ordutik gora kalean aparkatuta, eta udako hilabeteetan nahiz bero egiten duen egunetan denbora guztian itzalean dagoen lekuren batean utzi beharko dira, eta behar bezala aireztatuta egon beharko dute une oro.
20. Bizilagunei eta hirugarrenei enbarazu egitea behin eta berriz, erosotasunari eta osasun publikoari eragiten dieten jardunekin (gehiegizko zaunkak, higie-ne- arazoak, etab.), bereziki gauzez eta jaiegunetan.
21. Animaliak baliatzea ikuskizunetan, zirkuetan, filmazioetan, publizitate jardueretan, kultur nahiz erlijio ospakizunetan eta

2. Abandonar a los animales.
3. Mantenerlos sin la alimentación y agua necesaria para subsistir y/o en instalaciones no adecuadas desde el punto de vista higiénico-sanitario, de bienestar y seguridad animal.
4. Practicarles mutilaciones, excepto las controladas por personal veterinario en caso de necesidad, por exigencia funcional.
5. Mantener permanentemente atados a los animales de la especie canina.
6. Suministrarles alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daño físico o psíquico, aun cuando sea para aumentar el rendimiento en una competición.
7. Imponerles la realización de comportamientos y actitudes ajenas e impropias de su condición o que impliquen tratos vejatorios.
8. Utilizar animales en peleas.
9. Sacrificar animales en la vía pública, salvo en los casos de extrema necesidad y fuerza mayor.
10. La venta, donación o cesión de animales a personas menores de edad en los términos establecidos legalmente y a personas incapaces sin la autorización de quien tenga la patria potestad o tutela.
11. La venta ambulante en vía pública de animales, salvo en ferias o mercados expresamente autorizados.
12. La compraventa de especies cinegéticas no autorizadas para su comercialización.
13. La compraventa de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.
14. La donación de animales como reclamo publicitario, premio o recompensa, a excepción de negocios jurídicos derivados de la transacción onerosa de aquellos.
15. La compraventa de animales pertenecientes a especies protegidas y amenazadas, así como su posesión y exhibición en los términos de su legislación específica.
16. Alimentar de forma incontrolada en la vía pública, so-lares, ríos,... a los animales salvajes y salvajes urbanos, salvo autorización expresa.
17. Se prohíbe el abandono de cadáveres de cualquier especie animal en la vía pública, o en los contenedores de recogida selectiva de residuos, debiendo comunicar su presencia a los Servicios Municipales para que provean aquello que corres-ponda a tal situación. En este punto, igualmente se cumplirá con lo recogido en la Ordenanza Municipal de Residuos Domésticos y Comerciales de Errenteria.
18. La filmación, fotografiado o grabación en cualquier tipo de soporte comunicativo de escenas ficticias de crueldad, maltrato o sufrimiento de animales sin la comunicación previa al órgano competente de la Administración autonómica a los efectos de verificación de que el daño aparentemente causado es, en todo caso, simulado.
19. Utilizar los vehículos como alojamiento habitual de los animales. Del mismo modo, los vehículos que alberguen en su interior algún animal, no podrán estar más de dos horas estacionados, y, en los meses de verano o días calurosos, tendrán que ubicarse en una zona permanente de sombra facilitando en todo momento la ventilación.
20. Molestar al vecindario y a terceros con actuaciones repetitivas que afecten al confort y a la salud pública (ladridos excesivos, problemas de higiene, etc, ...), principalmente en horario nocturno y en jornadas festivas.
21. Utilizar animales en espectáculos, circos, filmaciones, actividades publicitarias, actividades culturales o religiosas y



beste edozein jardueratan, baldin eta horrekin mina eragingo baizaie, edo sufrimendua, degradazioa, parodia, iseka edo naturaz kontrako trataera badakarte berekin, edo ikusten dutenak mindu baditzakete.

22. Animalia etxekotuak nahiz gatibu dauden basa animaliak erabiltzea zirku eta ikuskizunetan. Halaber, zezen-ikuskizunak (zezenketa, sokamuturra, ahari-dema, etab.) edo antzekoak egitea kalean edo instalazio itxietan, aisialdiko helburuetarako.

23. Animaliak parke eta lorategi publikoetan eta hiri-lurretan egotea estabulazioko edo erdi-estabulazioko erregimenean.

24. Debekatua dago animaliak izatea lurzoru urbanizagarriko eta ez-urbanizagarriko baratzeetan, baserriei edo baimendutako landako etxebizitzetara lotutako edo horien erabilerako lur-sailetan izan ezik.

25. Animaliei tratu txarrak emateko aurrekariak dituztenek animaliak adoptatzea.

26. Kalean partikularrek iragarkiak jartzea animaliak saldu edo trukatzeko.

27. Animaliak bainatu edo garbitzea iturrietan eta leku publikoetan.

28. Animalien gorotzak kalean uztea.

29. Debekatuta dago edozein animaliarri tratu txarra edo heriotza eragiten dioten aisialdiko jarduerak burutzea.

30. Leku publikoetan pertsonak ura edateko dauden iturrietatik zuzenean edaten uztea animaliei. Azken hauek edan ahal izango dute soilik urarekin kontaktuan.

31. Animaliak haur jolasetarako esparruetan -zabuak, txirristak, parkeak eta abar- ibiltzea eta egotea.

32. Animaliak sartzeta eta egotea elikagaiak fabrikatu, saldu, biltegitatu, erakutsi, merkaturatu, garraiatu edo manipulatzeko diren lokal edo ibilgailuetan, Ordenantza honen 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

33. Debekatuta dago animaliak sartzeta eta egotea ikuskizun publikoak egiten diren lokal, barruti eta espazioetan, bai eta igerileku publiko, lokal sanitario eta antzekoetan eta hezkuntzako, kulturako edo aisialdiko konkurrentzia publikoko establezimenduetan ere, berariazko baimenik gabe.

34. Garraio publikoko ibilgailuetan animaliak eramatea pertsonentzako eserlekuetan.

#### IV. TITULUA

### ANIMALIAK EDUKITZEAREN INGURUKO ERREGIMEN JURIDIKOA

#### I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

##### 10. artikulua. Animalien jabeen betebeharrak.

1. Edozein animaliarren jabeak higie- eta osasun-baldintza onetan eduki beharko du hura, aterperako instalazio egokiak, janaria eta edaria, albaitaritzat-laguntza eta ariketa fisikorako aukera eman, eta haren beharrezan fisiologiko eta etologikoen araberako arreta eskaini, animaliarren espeziea eta arraza kontuan izanda. Horretaz gain, segurtasun-baldintza egokietan eduki beharra daukate, auzokoentzat, ondasunentzat edo animaliarrentzat berarentzat inongo arrisku edo enbarazu-egoerarik gerta ez dadin. Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren ildotik, animaliarren jabea izango da hark sortzen dituen kalte, galera eta eragozpenen erantzule.

cualquier otra actividad siempre que les pueda ocasionar daño, sufrimiento, degradación, parodias, burlas o tratamiento antinaturales o que puedan herir la sensibilidad de las personas que lo contemplan.

22. Utilizar animales domesticados y animales salvajes en cautividad en circos y espectáculos. Así como los espectáculos taurinos (lidia, sokamuturra, vaquillas y embolados, pruebas de bueyes, carneros, etc,...) o similares en la vía pública o instalaciones cerradas con fines recreativos o lúdicos.

